





JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA, ENPRESETAKO GOI ZUZENDARITZAN ETA ADMINISTRAZIO ORGANOETAN GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEKO, GIPUZKOAKO LURRALDEAN

Irati Basoredo Otzerinjauregi
Alberto Emparanza Sobejano
Elena Leiñena Mendizabal
Arantza Martínez Balmaseda
Andrea Meijomil González
Itziar Villafañez Pérez



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Egileak: Euskal Unibertsitate Sistemaren Ikerketa Taldea (Zuzenbide Fakultatea UPV/EHU)



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

Irati Basoredo Otzerinjauregi

Alberto Emparanza Sobejano

Elena Leiñena Mendizabal

Arantza Martínez Balmaseda

Andrea Meijomil González

Itziar Villafáñez Pérez

Liburuxkaren azalaren diseinua:

Sonia Herrera Meiró

Esker onak:

Juana Goizueta Vértiz

Argitalpena:



Finantzazioa:



Etorkizuna Eraikiz proiektua

Lanaren erabilpen publiko eta ez komertzialaren adierazpena, beti ere legeak aurreikusitako eskubide moralak errespetatuta.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA, ENPRESETAKO GOI ZUZENDARITZAN ETA ADMINISTRAZIO ORGANOETAN GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEKO, GIPIIZKOAKO LURRALDEAN

Etorkizuna Eraikiz Proiektua

Euskal Unibertsitate-Sistemako Ikerketa Taldea (Zuzenbide Fakultatea UPV/EHU): Irati Basoredo Otzerinjauregi – Alberto Emparanza Sobejano – Elena Leñena Mendizabal – Arantza Martínez Balmaseda – Andrea Meijomil González – Itziar Villafañez Pérez



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA, ENPRESETAKO GOI ZUZENDARITZAN ETA ADMINISTRAZIO ORGANOETAN GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEKO, GIPUZKOAKO LURRALDEAN

AURKIBIDEA

I. Helburuak eta justifikazioa	5
I. Eranskina: JEK ezartzen laguntzeko mekanismoak	8
II. Hautagaien aukeraketa eta sustapena enpresako goi zuzendaritzarako eta administrazio organorako, eta justifikazioa.....	11
II. Eranskina: JEK ezartzen laguntzeko mekanismoak.....	16
III. Kontzilio neurriak eta prestakuntza programak enpresan	17
IV. Gardentasun neurriak enpresaren kanpo eta barne komunikazioa hobetzeko	21
III. Eranskina: JEK ezartzen laguntzeko mekanismoak.....	24
V. Erreferentziak.....	25

I. HELBURUAK ETA JUSTIFIKAZIOA

Jardunbide egokien kodeak (JEK) genero arloko berdintasun eragingarria eta benetakoa nahiz dibertsitatea¹ sustatu nahi ditu enpresetako organo erabakitzailleetan, Gipuzkoako lurraldean²; bereziki, goi zuzendaritzan (GZ) eta administrazio organoetan (AO)³, kodea enpresak eta lurraldea eraldatzeko nahiz jasangarritasunez kudeatzeko tresna bat izan dadin⁴.

Helburu hori lortze aldera, jardunbide egokien kode honek gomendio argiak eta zehatzak bildu ditu, emakumeak enpresako organo erabakitzailleetan sar daitezzen sustatu eta errazteko. Horrela, enpresaren politika estrategikoa eraldatzeko abian jarri behar diren hobekuntza-ekintza zehatzak ahalbidetzen dira eta, horren ondorioz, enpresa-antolamenduaren etorkizuneko jasangarritasunaren oinarriak ezartzen dira, lurraldean ez ezik, Europan ere integratuta egon dadin.

Aurrera egin du nabarmen emakumeek sektore publikoko nahiz pribatuko organo erabakitzailleetan parte hartzearen aldeko jarrerak. Tutela horren erakusgarri, botere legegileak genero orekaren babesari txertatu du antolamendu juridikoan –kasu honetan, pribatuan–, berdintasun (EK 14. art.), justizia eta ekitate printzipioek gai honetan eskatutakoari erantzunez⁵.

¹ JEKren arau-egituraketa genero arloko berdintasunari eta orekari dagokie berariaz, baina bi printzipio horiek dibertsitatearen kontzeptu zabala ere osa dezakete.

² JEKren gomendioak, nagusiki, enpresa ertain eta txikientzat dira, baina enpresa handiagoetan ere ezar daitezke, hots, gai honi buruz indarrean diren askotariko araudiei lotuta dauden haietan.

³ Administrazio organo kontzeptuak bere barnean biltzen ditu organo hori bera kapital sozietateen nahiz ekonomia sozialaren (kooperatibak) baitan antolatzeko moduak, zaintza batzordea barne.

⁴ Garapen Jasangarriko Helburuak (GSH, 2015): 5 (genero berdintasuna), 12 (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak) eta 16 (bakea, justizia eta instituzio sendoak).

⁵ Horren haritik, gobernu korporatiboa hobetzeari buruzko abenduaren 3ko 31/2014 Legearen genero orekaren eta dibertsitatearen inguruko arau programatikoak. Lege horren bidez Kapital Sozietateei buruzko Legea aldatu zen (EAO-A-2014-12589), eta Sozietate Kotizatuen Gobernu Onaren Kodea, CNMVren Kontseiluak 2015eko otsailaren 18an onetsia. Kode horren azken aldaketa 2020ko ekainaren 26koa da eta gomendioei hainbat neurri erantsi zitzaizkien emakumeen presentzia administrazio kontseiluetan sustatzeko eta, era berean, informazio ez finantzarioari eta jasangarritasunari garrantzi handiagoa emateko.

Izan ere, genero arloko oreka lagungarria da enpresak eraginkortasun handiagoz jardun dezan, eta aukera gehiago dauzka emaitzak hobetzeko, talentua erakartzeko eta berrikuntza egiteko, horrela aurrerapen soziala eta jasagarritasuna bultzatuta. Bada, inguruabar aztertu eta erkatu hori⁶ aintzat hartuta, Kodeak, halaber, bi tresna osagarri bildu ditu. Batetik, gomendioak behar bezala ezartzen laguntzeko neurri gehigarriak (I. Eranskina). Eta bestetik, adierazle sorta bat, gomendioak lurraldeko enpresetan ezartzeak epe erdira eta luzera zer inpaktu eragingo duen kuantifikatzeko.

Gomendioak

- 1.** Enpresak konpromiso bat hartuko du, genero berdintasun eragingarria eta benetakoa bere organo erabakitzaileetan sustatzeko (GZ eta AO).
- 2.** Aurrez, diagnostiko bat egingo da emakumeek enpresaren organo erabakitzaileetan duten parte-hartzeaz, hau da, enpresako goi zuzendaritzan eta administrazio organoan edo kontseiluan. Diagnostikoak bereziki hartuko ditu aintzat emakumeek enpresan duten ahotsa eta iritzia, eta behar diren tresnak erabiliko ditu genero diagnostikoa enpresetan egiteko (WEP)⁷, eta era berean, emakumeek enpresan duten parte-hartzea generoaren ikuspegitik diagnostikatzeko⁸.

⁶ Nazio Batuetako Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) txostena (2019) (https://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---dgreports/---dcomm/---publ/documents/publication/wcms_700977.pdf); "Emakumeek Gipuzkoako enpresan duten parte-hartzea aztertzeko tresna", *El género en el centro de la participación. Herramienta de análisis avanzado de la participación de las mujeres trabajadoras en las empresas de Gipuzkoa*, Zenbaiten Artean, GEZKI, 2017, 59-61. or.

⁷ "WEP generorako enpresa tresna", *El género en el centro de la participación. Herramienta de análisis avanzado de la participación de las mujeres trabajadoras en las empresas de Gipuzkoa*, Zenbaiten Artean, GEZKI, 2017, 47-48. or. Autoebaluaziorako galdetegi bat, enpresei zuzendua, genero berdintasuna lantokian, merkatuan eta komunitatean ebaluatu dezaten.

⁸ "Herramienta de diagnóstico de la participación de las mujeres desde la perspectiva de género", *El género en el centro de la participación. Herramienta de análisis avanzado de la*

3. «Berdintasunerako agenda edo protokolo» bat finkatuko da emakumeak enpresaren organo erabakitzaileetan (GZ eta AO) mailaka sartzeko, kuota malguak ezarrita⁹, lau urteko epean emakumeek ordezkari izan dezaten aipatu organoetan¹⁰.

4. Zuzendaritza batzordea (edo pertsona arduraduna) arduratuko da jardunbide egokien kodea ezartzeaz eta gainbegiratzeaz. Kodea enpresaren administrazio organoak edo kontseiluak abalatu du. Administrazio organoak edo kontseiluak, era berean, berdintasun planak enpresaren goi zuzendaritzan ezartzea zainduko du.

5. Jarraipena egiteko batzorde misto bat sortuko da, sei hilekoan behingoa edo urtean behingoa, zuzendaritza batzordeak edo enpresaren pertsona arduradunak eta UPV/EHUko kanpo talde batek osatua¹¹. Talde horren eginkizun nagusia JEK ezartzeko prozesua aztertzea izango da, eta era berean, noraino ezarri den kuota malgua lau urteko epe horren barruan, epealdi horretan sor daitezkeen gorabeheri erantzuten saiatze aldera.

6. Berdintasunarekin konprometitu dagoen kultura enpresarialaren zabalkundea egitea zainduko da. Horretarako, administrazio organoko edo kontseiluko eta goi zuzendaritzako kideak prestatu eta sentsibilizatuko dira tratu eta aukera berdintasunaren arloan bateratasunez eta globaltasunez ekin beharraz.

participación de las mujeres trabajadoras en las empresas de Gipuzkoa, Zenbaiten Artean, GEZKI, 2017, 65. or. eta hurrengoak. 70. orrialdean galdetegi bat ageri da emakumeek enpresaren erabakietan dute parte-hartzea autoebalutzeko.

⁹ Malgutasuna bai xede-kuotaren aplikazioan, bai emakumeak mailaka sartzeko epearen aplikazioan, enpresak erabakitakoarekin bat. Malgutasun horrek egituratuko du enpresak bere borondatez hartutako konpromisoa.

¹⁰ 40/60 proportzioa errespetatuko duen ordezkari izan da ordezkari izan orekatuz, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarriarekin bat.

¹¹ *Etorkizuna Eraikiz* Programan sarturiko taldea. Programa Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatua da (2020-2021).

Berezko neurriak landu eta hartuko dira, gainera, laneko osasunari eta segurtasunari buruz, sexu-jazarpeneko egoerarik gabeko edota generoan oinarritutako jazarpenik gabeko lan ingurunea sortze aldera.

7. Behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko dira eskura berdintasunaren aldeko programak ezarri, garatu eta haien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, eta era berean, prestakuntza-programak ezartzeko, bai goi zuzendaritzan, bai administrazio organoan edo kontseiluan.

I. Eranskina: JEK ezartzen laguntzeko mekanismoak

1. Kontu teknikoetan edota, beren tankeragatik, beharrezkoa den kontuetan, kanpo aholkularitza espezializatura joko da, bai eta genero berdintasunaren alde ari diren instituzio (bereziki, Emakunde), elkarte eta aholkularitzetara ere.

Kanpo kontratazio horrek goi zuzendaritza eta administrazio organoa aukeratzeko batzorde edo komisioen lana erraztea xede duenean, langileak aukeratzeko enpresak kasuan kasuko enpresaren berdintasun politikak txertatu beharko ditu, bai eta JEK honetako gomendioak ere.

2. Estatutuetan xedapen jakin batzuk egituratzea proposatzen da, kode honetan berdintasunaren alde bildutako neurriak hobeki garatzen laguntzeko. Honako hauek, bereziki:

2.1. Digitalizatzearen arloan, modalitate digitalak proposatzen dira administrazio organoaren edo kontseiluaren jardunean egiten diren bilera eta parte-hartze presentzialeko ohiko formula materialak osatzeko. Kapital-sozietateei dagokienez, lehenik, badago bilera birtualak egiteko aukera, dela bideokonferentziaz, dela konferentzia telefoniko anizkoitzaz, dela aurrez aurreko bileretan laguntza telematikoa emanez; horretarako, aukera hori

nahitaez aurreikusi behar da estatutuetan bai SARako, bai EMSrako. Bigarrenik, erabakiak era idatzian eta saiorik gabe hartzeko aukera egituratu liteke; hori berariaz aitortua dago KSL Legean¹² SARako. Dena den, formula hori EMSrako hartzen bada, estatutuetan aurreikusi beharko da.

Funtzionamendurako neurri horiek berberak, halaber, enpresan izan litezkeen gainerako zuzendaritza organoei aplikatuko zaizkie.

Sozietate kooperatiboei dagokienez, eta EKL Legeari jarraikiz¹³, estatutuetan aukera eman daiteke urruti dauden zuzendaritza kontseiluko kideek parte har dezaten bideokonferentziaren bidez edo, bestela, irudiaren eta soinuaren bi noranzko eta aldi bereko komunikazioa, eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko elkarrekintza ahalbidetuko duen sistema baten bidez. Baina, batzar orokorrean gertatzen denaz bestela, ez da aurreikusten berariaz boto telematikoa organo horretan.

2.2. Administrazioaile bat izendatzen bada pertsona juridiko baten ordezkari izateko, huraxe karguan aritzeko ordezkatzeko duen pertsona fisiko bat izendatu beharko da. Aipatu izendapenerako, pertsona juridiko jakin bat aukeratzen saiatu beharko da, hots, bere erakundearen baitan eta bere politiketan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarria sustatuko duena.

Gainera, presentzia orekatuko printzipioari egingo zaio men, karguari berez dagozkion eginkizunak modu iraunkorrean betetzeko pertsona naturala izendatzerakoan.

¹² 1/2020 Errege Dekretu Legegilea, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.

¹³ 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibei buruzkoa.

II. HAUTAGAIEN AUKERAKETA ETA SUSTAPENA ENPRESAKO GOI ZUZENDARITZARAKO ETA ADMINISTRAZIO ORGANORAKO, ETA JUSTIFIKAZIOA

Emakumeek eta gizonek goi zuzendaritzan eta administrazio organoan presentzia orekatua izatea helburu desiragarria da edozein enpresatan. Kudeaketa organo horietan emakumeen parte hartzea sustatzeko ezarri beharreko neurrien artean, ekintza positiboak daude aukeraketa eta barne sustapena egiteko prozesuetan. Neurri horien bidez, emakumeen eta gizonen presentzia parekidea sustatuko litzateke GZn eta AOn, eta horrez gain, tratu eta aukeren berdintasuna emakumeen eta gizonen garapen profesionalean. Neurriek, bereziki, sustatu eta hobetuko lituzkete emakumeek ardura-postu horietara sartzeko aukerak, aldi berean enpresaren ordezkari-tza organoen baitan izan litezkeen desorekak murrizten lagunduta, desorekak jatorri kultural, sozial edo familiarrekoak izanik ere.

Gomendioak

8. GZn eta AOn kide diren pertsonak aukeratu eta sustatzeko prozesuak bideratuak egongo dira genero arloko oreka enpresaren erabakitze eta kudeaketa maila guztietan lortzera; bereziki, ordezkari-tza txikia duten mailetan eta finantza arloetan.

9. AOko eta GZko kideak aukeratu eta izendatzeko politikak, parekidetasunik ez dagoenean eta postu hutsak daudenean, emakumeen pixkanakako igoera aurreikusiko du urteko, harik eta lau urteko epean emakumeen eta gizonen artean zenbaki proportzionala lortu arte.

10. GZko kideak aukeratzeko prozesu eta protokoloek eta AOko izendapenek talentua aitortzeko irizpideak izanen dituzte oinarri¹⁴, bai eta gaitasun profesionala ere, irizpide malguak eta arrazoizkoak erabilita.

11. Gobernu organoak ondorengotza-planak garatuko ditu epe erdira, kontratatu beharreko esperientziaren eta gaitasun mailaren arteko koherentzia identifikatu dezaten, hurrengo bizpahiru urtean GZko eta AOko postu hutsak betetze aldera, eta horretarako, kanpo laguntza teknikoa jaso ahal da (II. Eranskina).

11.1. GZko eta OAKo kideak izendatzeko, organoaren osaera globalari erreparatuko zaio, bereziki. Era berean, genero arloko orekan eta dibertsitatean lortu nahi dituzten helburuen baitan, emakumeak kontratatzeke lehentasuna aztertu ahalko da.

11.2. Aukeraketaz eta sustapenez arduratzen diren taldeek emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bete dezatela sustatuko da. Gutxienez bi kidez osatuak egongo dira eta, gutxienez ere, haietako bat gutxien ordezkaturako taldekoa izango da¹⁵.

11.3. Aldez aurretik, bete beharreko karguak aztertu eta ebaluatuko dira, eta lanpostuak zehaztu, bai eta zer gaitasun behar diren eta zer lan mota diren ere, bakoitzean aritzeko irizpideak adierazita. Aldi berean, zehaztuko da zer espektatiba sozial, instituzional eta pertsonal dagozkion eginkizuna betetzeari, bai eta enpresaren kultur ezaugarriak ere.

¹⁴ Horri dagokionez, ekonomia sozialeko sozietateetan (kooperatibak) talentua aitortzea jotzen da egokitze, emakume bazkideei begira, GZko eta AOko kideak aukeratzeko prozesuetan hautagai potentzial gisa.

¹⁵ Egokia da azpimarratzea taldeek kide gehiago baldin badituzte, 40/60 proportzioa errespetatuko duen huraxe joko dela proportzio orekatutzat, hau da, taldeetako bakoitzak ez ditzala ordezkartza-zenbaki horiek gainditu (proportzio hori emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatua dago).

11.4. Eskura dagoen edozein bide erabiliko da GZko eta AOko kideen lanbide eta eskumen profilen gardentasuna eta publizitatea sustatzeko.

11.5. Emakumezko langileak hartzea erraztuko duten GZko eskaintzak komunikatu eta hedatzeko kanalak erabiliko dira, hala nola emakume ehunekorik handieneko unibertsitateak, elkarteak, lanbide elkargoak edota emakumeen parte-hartzea sustatzen eta bultzatzen diharduten erakundeak.

11.6. Eskaintzetan, hedabideetan eta aukeraketa nahiz sustapena egiteko elkarrizketetan, hizkuntza neutroa erabiltzen saiatuko da beti.

12. Aukeraketa edo sustapen prozesuak behar bezalako zorrotasuna eta profesionaltasuna erakutsi behar ditu eta genero lerratze inkontzientea saihestu.

12.1. Posturako hautagaien zerrendek proportzionalak izan beharko dute, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzen saiatuta. Kontrako kasua arrazoitu beharko da eta, gutxienez, ordezkaritza txikiena duen taldeko hautagai bat sartzen saiatu behar da.

12.2. Aukeraketa egiteko irizpideek gardentasun eta objektibotasun printzipioekin bat etorri beharko dute eta, horrez gain, merezimendu garrantzitsuak, gaitasunak nahiz trebetasun pertsonalak izango dituzte oinarri, postuak betetzeko betebeharrekin bat.

12.3. *Curriculum Vitae* (C.V.) hartuko da abiaburu esperientzia profesionala baloratzeko, eta lanpostuen baldintzekin alderatuta aztertuko da, baina, hala ere, hori ez da irizpide erabakigarria izango. Edonolako lerratze inkontzientea eragozte aldera, C.V.ren azterketa itsua egingo da.

12.4. Langileak aukeratzeko teknika profesionalak erabiliko dira eta, haien artean, lana nola betetzen duen ebaluatzeko elkarrizketa egin beharko da

nahitaez, dokumentazioan ageri den esperientzia erkatzeko balio beharko duena. Era berean, gomendagarria da pronostiko bat egitea kargua betetzean izan litezkeen etorkizuneko arazoak konpontzeko moduari buruz.

12.5. Hautagai gizonezkoa eta hautagai emakumezkoa baldintzetan berdindurik daudenean, arrazoizko zalantzarik dagoen kasuetan, talde gutxiengoduneko pertsonaren aldeko diskriminazio positiboaren irizpide aplikatuko da.

12.6. Saiatuko da ez zehatzen legez ezarrita dauden kontziliazio neurrien erabilera edota enpresak sustatutako neurrien erabilera egun edo iraganean, ezta emakumeen sarbidea tratatzen ere GZko eta AOko postu hutsetara, emakume horiek eszedentzian daudenean edo zainketa-lizentziak eman zaizkienean. Postuaren betebeharrak direla eta, kontziliazio neurrien erabilerari uko egin behar izatekotan, hautagaiari galdetzea komeniko da.

13. Izendapen prozesuaren gardentasuna era dokumentatuan bermatzen saiatuko da, erakundearen barne esparruan partekatuko dena. Era berean, JEKrekiko atxikipena eraginkortasunez monitorizatuko da.

14. GZko eta AOko kide berriek laguntza jasoko dute postuan sartzean eta behar den laguntza emango zaie beren roletan azkar egokitze aldera; zehazki, JEK aplikatzeaz arduratzen diren pertsonen laguntza jasoko dute.

15. GZren aukeraketa eta sustapen prozesuak zein AOko izendapenak kudeatzeko unitateek seihilekoan behin eta/edo urtean behin egingo dute bai ebaluazioa bai komunikazioa, ezarritako genero adierazleekin bat.

16. Behar diren adierazleak aurreikusiko dira, GZren eta AOren baitan egindako aukeraketa eta sustapen prozesuak ebaluatzen laguntzeko, emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa haien osieran

bete dadin. Genero adierazleak gardenak, objektiboak eta kuantifikagarriak izango dira¹⁶.

16.1. Adierazleek, halaber, kontziliazio neurriak baloratuko dituzte, betiere sustapen profesionalean zehatu gabe, ez antzintasuna, ez amatasunak eragindako disponibilitate txikiagoa.

16.2. Ordainsari-berdintasuna neurtzeko adierazleak egongo dira, GZko eta AOko kideen arduraren arabera.

16.3. Adierazleek, halaber, emakume sustatuen ratioak erakutsiko dituzte, sustapen guztien gainean.

16.4. Adierazleek, halaber, etengabeko prestakuntzan aritutako emakumeen ratioak erakutsiko dituzte, guztizko prestakuntzaren gainean.

17. Era berean, pizgarriak ezartzen saiatuko da genero adierazleen ebaluaziorik onena duten kudeaketa arloetarako.

18. Proposatzen da enpresak urtero bil dezala GZko eta AOko genero gaiari buruzko informazio ez finantzarioa urteko kontuen txostenean eta, kasua bada, kudeaketa txostenean.

19. Betetzen ez badira AOren izendapen politikaren helburuak eta/edo GZrako aukeraketa eta sustapen prozesuen helburuak, enpresak arrazoitu beharko du zergatik ez diren helburu horiek bete eta, bere kasuan, helburuak birzehaztu beharko ditu.

¹⁶ Adierazleak, berdintasun politikak enpresan nola ezarri diren neurtzeko tresnak dira eta aintzat hartuko dituzte bai ekonomia sozialeko sozietateen (kooperatibak) berezitasunak, bai sozietate haietako zuzendaritza eta gainbegiratze (zaintza batzordea) organoen dibertsitatearen berezitasunak.

II. Eranskina: JEK ezartzen laguntzeko mekanismoak

1. Berdintasun arloko auditoria egitea zehazten den kasuetarako edo kanpo aholkularitza behar denean, hots, GZko eta AOkoko kideak aukeratu edo sustatzeko prozesuetan, behar bezala begiratuko da horretarako aukeratu diren langileek berdintasunean duten prestakuntza, eta era berean, genero berdintasuna sustatzen duten instituzio eta entitateek maila autonomikoan, nazionalean eta nazioartean xedatutako berdintasun irizpideen jarraipena.

III. KONTZILIAZIO NEURRIAK ETA PRESTAKUNTZA PROGRAMAK ENPRESAN

Enpresa orotan da helburu desiragarria emakumeen eta gizonen berdintasuna eta presentzia orekatua goi zuzendaritzan eta administrazio organoan. Bada, helburu horrekin bat, beharrezkotzat jotzen da enpresak neurri eraginkorrak ezar ditzala, amatasunak edo haurrek eta/edo adinekoek behar dituzten zainketek ukitu edo kaltetu ez ditzaten emakumeen ibilbide profesionalak, ez GZn, ez AOn. Horretarako, enpresak hainbat neurri ezartzea aurreikusiko du lan ordutegia malgutzeko, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiten errazteko, eta erantzunkidetasuna sustatzeko. Komenigarritzat jotzen da, halaber, emakumeak goi zuzendaritzako gaitasun eta trebezetan prestatzea eta, era berean, berezko programak prestatzea langile guztientzat, sexu-jazarpenerako jokamoldeei edo generoan oinarritutako jazarpenei aurrea hartze aldera.

Gomendioak

20. AOkoko eta GZko kideek behar den denbora erabiliko dute eta disponibilitate egokia ere izango dute beren eginkizunak ongi eta eraginkortasunez betetzeko. Horren haritik, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egiteko neurriak ezarriko dira, emakumeen parte-hartzea ardua-postuetan areagotzeko.

20.1. Norberaren bizitzarekin eta lanarekin bateragarriak diren bilera-ordutegiak ezartzen saiatuko da.

20.2. Administrazio edo zuzendaritza organoetako bileretan urrutitik parte hartzeko aukera sustatuko da, halaxe komeni denean.

20.3. Teknologia berrien bitartez erraztuko da amatasuna edo zainketak direla-eta lizentzia duten emakume profesionalen (GZ eta AO) kontaktua, bai harremanari eusteko, bai enpresaren proiektuarekiko axolagabetasuna eragozteko.

20.4. Berdintasun planek neurri zehatzak garatuko dituzte, bizitza pertsonala eta familiakoa lanarekin bateragarri egiteko, GZrako.

21. Erantzunkidetasun sozialeko kultura sustatuko da enpresan, haurrak eta adinekoak zaintzeko lanak gizonen eta emakumeen artean ekitatez banatze aldera.

Erantzunkidetasunezko kultura horretan laguntze aldera, amatasun zein aitatasun lizentziak emango dira. Era berean, organo erabakitzaile guztietan, lanaldi murrizketa emango da haurrak eta adinekoak zaintzeko, genero bereizketarik gabe, eta horrek ibilbide profesionalerako oztoporik eragin gabe.

22. Prestakuntza ekintzak egitea sustatuko da trebetasunak eta gaitasunak berdintasunez garatzeko, genero bereizketarik gabe.

Berariaz, emakumeentzako prestakuntza jarduerak egingo dira zuzendaritza arloko trebetasunak sendotzeko, eta emakumeak goi zuzendaritzako postuetan eta administrazio organoan sar daitezten indartzeko (*mentoring, coaching* emakumeentzat, talentu femeninoaren sareen sorrera, etab.).

23. Berezko programen bidezko prestakuntza egingo da sexu-jazarpeneko edo generoan oinarritutako jazarpeneko jokamoldeei aurrea hartzeko, bai goi zuzendaritzako postuetan, bai administrazio organoan. Prestakuntza, halaber, tarteko agintarientzat, teknikarientzat eta taldeak kudeatzeko langileentzat izango da.

IV. GARDENTASUN NEURRIAK ENPRESAREN KANPO ETA BARNE KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO

Enpresak barnera eta kanpora begira egingo du genero berdintasunean eta orekan hartutako konpromisoaren komunikazioa, bai eta horren bilakaera eta balorazioa azaltzeko ere, hori guztiz tresna garrantzitsutzat jotzen baita kultura enpresarialaren eta sozialaren aldaketan eragiteko, eta horrez gain, enpresaren jasangarritasuna lurraldean bermatzeko tresna bat izateko. Horrenbestez, beharrezkotzat jotzen da gardentasuna ziurtatzeko neurriak landu eta abian jartzea, interes taldeek are gehiago jakin dezaten zer-nolako konpromisoa duen enpresak berdintasunarekiko, haiek ere konpromiso horrekin bat egin dezaten eta, azken buruan, genero oreka enpresan bertan eta haren ingurunean lortzera bideratutako estrategia eta ekimen guztiak berma ditzaten.

Oso garrantzitsua da, gainera, genero berdintasuna errespetatuko duten komunikazioak erabiltzea azalez eta mamiz, oso garrantzitsuak baitira berdintasuna bultzatzeko erabiltzen diren hizkuntza eta irudiak. Arrazoi hori bera dela medio, enpresako emakumeei ikusgaitasuna ematen saiatu beharra dago; ardura-postuetan ari direnei, bereziki.

Azkenik, hartutako konpromisoen inguruko kontrol eta salaketa mekanismoek konpromiso horien eraginkortasuna sendotzen dutela jotzen da.

Gomendioak

24. Berdintasunaren aldeko politika enpresako GZn eta AOn zer-nola bilakatzen ari den aldian-aldian baloratzeko adierazleen datuak bilduko dira. Enpresak datu horiek aztertuko ditu, adierazle horien bilakaera aztertze aldera, eta horrenbestez, enpresaren berdintasun politika baloratze aldera.

24.1. Datuak kudeaketa-unitate bakoitzeko arduradunek eta AOk emango dituzte.

24.2. Zuzendaritza batzordeak eta AOk adierazleak aldian-aldian gainbegiratu, aztertu eta ebaluatuko dituzte eta, halaber, berdintasun politika baloratuko dute.

24.3. Pizgarriak proposatuko dira unitate berdinzaleentzat.

25. Barne eta kanpo komunikaziorako planak prestatuko dira enpresak genero berdintasunean hartutako konpromisoak azaltzeko, betiere zehaztuta zer neurri hartu diren, noiz ezarriko diren eta zer adierazleren bidez ebaluatuko diren, bai eta epeak bete ote diren ere.

25.1. Barne esparruari dagokionez, komunikazio plan bat prestatuko da enpresako kudeaketa arlo guztientzako eta arduradunentzako. Era berean, lantalde osoari eta akziodun guztiei emango zaie enpresaren berdintasun politikaren berri.

25.2. Kanpo esparruari dagokionez, komunikazio plan bat diseinatuko da elementu horiek enpresako interes talde guztiei ezagutzera emateko (*stakeholders*); besteak beste, bezeroei, enpresa hornitzaileei, Administrazioari eta komunitateari.

26. Plan bat diseinatuko da enpresa barruko esparru guztietako komunikazioek genero ikuspegiaren alderdi eta forma guztiak kontuan har ditzaten, komunikazio horien bidez genero berdintasuna sustatze aldera; bereziki baztertuko dira genero berdintasunaren inguruko diskriminazioa sortu edo sakondu ditzaketen elementuak.

26.1. Enpresaren komunikazio guztietan hizkuntza inklusiboa erabiliko da bereziki. Era berean, ez dira zabalduko emakumeak errespetatzen ez dituzten irudiak eta mezuak, ezta emakumeak baztertzen edo rol estereotipatueta agertzen dituztenak ere.

26.2. Komunikazio berdinzalea enpresaren esparru guztietan egingo da, hala barrura nola kanpora begira, komunikazio idatzian, ahozkoan, ikus-entzunezkoan edota edonolakoetan, bai eta barne dokumentazioan, kontratuan edo bestelako edo edonolako merkataritza-komunikazioetan ere.

26.3. Kontuan hartuko da enpresaz kanpoko pertsonak edo entitateek komunikazio ez baztertzailea erabiltzea, haiekiko merkataritza-harremanak edo bestelakoak egiteko orduan.

26.4. Genero ikuspegiarekin bat, komunikazioek emakumearen ikusgaitasuna landuko dute. Emakumeen presentzia bereziki sustatuko da enpresak instituzioen edo elkarten ekitaldietan izango dituen ordezkartzan, talentu femeninoko sareak egituratze aldera. Era berean, GZko eta AOko emakume profesionalen profilaren ikusgaitasuna hobetzen saiatuko da enpresaren webgunean.

27. Protokolo bat landuko da kontrol mekanismoak eta barne salaketarako edo erreklamaziorako bideak ezartzeko, baldin eta urratzen badira enpresak genero berdintasunaren inguruan hartutako konpromisoak. Mekanismo horiek bermatuko dute konpromisoak urratu izanaren salaketek edota urradurak atzematen laguntzeko informazioek ez dutela inolako ondorio kaltegarririk ekarriko, ez salaketa egileentzat, ez informazio emaileentzat. Anonimotasunez egiteko aukera ere eman behar da.

III. Eranskina: JEK ezartzen laguntzeko mekanismoak

1. Aitortza independente batek, gainera, genero berdintasunaren aldeko politikaren ezarpenaren zabalkundea eta proiektzioa berma ditzake, hau da, enpresak genero berdintasunarekin duen konpromisoa ziurtatze aldera. Bereziki gomendatzen da Emakunderi eskatzea berdintasunezko enpresa izatearen ziurtagiria, izaera instituzionala duena, enpresaren merkataritza-publizitatean zabaldu daitekeena.

V. ERREFERENTZIAK

– Camino hacia la diversidad de género: buenas prácticas empresariales. OIT, 2017, 1-72 or.

Eskuragarri: https://www.ilo.org/actemp/publications/WCMS_578770/lang-es/index.htm

– Código de buenas prácticas para la gestión del talento y la mejora de la competitividad de la empresa, Eje & Con, 2018, 1-32 or.

Eskuragarri: <https://ejecon.org/descargas/codigo-ejecon.pdf>

– El género en el centro de la participación. Herramienta de análisis avanzado de la participación de las mujeres trabajadoras en las empresas de Gipuzkoa, Zenbaiten Artean, GEZKI, 2017.

Eskuragarri: <https://www.gezki.eus/pdfs/65c99474ea.pdf>

– *European Voluntary Code of Conduct for Executive Search Firms, AESC Offers Enhanced Access to Executive Search Community for 7,500 Female Executives Identified as Board-Ready by the GBRW affiliated Top Business Schools, Corporate Women and Professional Organizations the World Over*, AESC, 2013.

Eskuragarri: <https://www.bluesteps.com/blog/bluesteps-offering-complimentary-access-7500-board-ready-female-executives>

– Guía de buenas prácticas para el acceso de mujeres a puestos tradicionalmente ocupados por hombres y viceversa, Red de empresas con Distintivo «Igualdad en la Empresa» (Red DIE), Subdirección General para la Igualdad en la Empresa y la Negociación Colectiva, Instituto de la Mujer y para la Igualdad de Oportunidades, Secretaría de Estado de Servicios Sociales e Igualdad, Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad, 2015, 1-76 or.

Eskuragarri: https://www.igualdadenlaempresa.es/recursos/monograficos/docs/Buenas_practicas_acceso_mujeres_a_puestos_masculinizados.pdf

- Guía de recomendaciones para igualar las condiciones de acceso de las mujeres a consejos de administración y puestos directivos de las empresas, Aspegi, 2015, 1-28 or.

Eskuragarri: <https://www.aspegi.org/es/proyectos/699-aspegi-edita-una-guia-de-recomendaciones-para-favorecer-la-participacion-de-las-mujeres-en-los-ambitos-de-decision-de-la-empresa>

- Plan de Igualdad 2017-2021 del Colegio Vasco de Economistas.



Eskuragarri:

<https://www.ekonomistak.eus/Contenidos/Ficha.aspx?IdMenu=e71a114f-85ba-4730-9eac-da2c50bb0a91&Idioma=eu-ES>

- VELASCO, EVA; ALDAMIZ-ECHEVARRÍA, COVADONGA; FERNÁNDEZ DE BOBADILLA, SARA; INTXAURBURU, M. GURUTZE; LARRIETA, IZASKUN: *Guía de buenas prácticas en responsabilidad social de género*, Pirámide, Madril, 2013.

CÓDIGO DE BUENAS PRÁCTICAS PARA PROMOVER LA IGUALDAD DE GÉNERO EN LA ALTA DIRECCIÓN Y EN LOS ÓRGANOS DE ADMINISTRACIÓN DE LAS EMPRESAS EN EL TERRITORIO DE GIPUZKOA

Irati Basoredo Otzerinjauregi
Alberto Emparanza Sobejano
Elena Leñena Mendizabal
Arantza Martínez Balmaseda
Andrea Meijomil González
Itziar Villafáñez Pérez



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Autoría: Grupo de investigación del Sistema Universitario Vasco (Facultad de Derecho UPV/EHU)



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

Irati Basoredo Otzerinjauregi
Alberto Emparanza Sobejano
Elena Leiñena Mendizabal
Arantza Martínez Balmaseda
Andrea Meijomil González
Itziar Villafañez Pérez

Diseño de la portada:

Sonia Herrera Meiró

Agradecimientos:

Juana Goizueta Vértiz

Edición:



Financiado por:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Proyecto *Etorbizuna Eraikiz*

Declaración de utilización pública y no comercial de la obra, siempre que se respeten los derechos morales previstos en la ley.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

erran ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

CÓDIGO DE BUENAS PRÁCTICAS PARA PROMOVER LA IGUALDAD DE GÉNERO EN LA ALTA DIRECCIÓN Y EN LOS ÓRGANOS DE ADMINISTRACIÓN DE LAS EMPRESAS EN EL TERRITORIO DE GIPUZKOA

Proyecto *Etokizuna Eraikiz*

Grupo de investigación del Sistema Universitario Vasco (Facultad de Derecho UPV/EHU): Irati Basoredo Otzerinjauregi – Alberto Emparanza Sobejano – Elena Leñena Mendizabal – Arantza Martínez Balmaseda – Andrea Meijomil González – Itziar Villafañez Pérez

erran ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

ÓRGANOS DE ADMINISTRACIÓN DE LAS EMPRESAS EN EL TERRITORIO DE GIPUZKOA

ÍNDICE

I. Objetivos y justificación	5
Anexo I: Mecanismos de ayuda para la implementación del CBP.....	8
II. Selección y promoción de candidatos y candidatas a la alta dirección y al órgano de administración de la empresa y justificación	11
Anexo II: Mecanismos de ayuda para la implementación del CBP	16
III. Medidas de conciliación y programas de formación en la empresa	17
IV. Medidas de transparencia para mejorar la comunicación externa e interna de la empresa.....	21
Anexo III: Mecanismos de ayuda para la implementación del CBP	24
V. Referencias	25

I. OBJETIVOS Y JUSTIFICACIÓN

El objetivo principal de este código de buenas prácticas (CBP) es promover la igualdad real y efectiva de género y la diversidad¹ en los órganos de decisión de las empresas en el territorio de Gipuzkoa², en particular, en la alta dirección (AD) y en sus órganos de administración (OA)³, de forma que conforme un instrumento de transformación y sostenibilidad empresarial y territorial⁴.

